

zerk alda  
ditzake gauzak

# egungo laberintoan

orientatzeko gida labur bat

2000ko urria eraikikazi 6 Bake prozesua

**elkarri**



www.elkarri.org

# elkarriri lagundu

nahi badiozu, ondorengo bide hauek erabil ditzakezu

•elkarriren dirulaguntzailea izan nahi dut (14 kuota urtean)

Diru-laguntzaile guztiak jasoko dituzte Elkarri eta Elkarrikasi aldizkariak

1.500 pta.

2.000 pta.

5.000 pta.

10.000 pta.

•Aportazio bakarra egin nahi dut

10.000 pta.

25.000 pta.

50.000 pta.

100.000 pta.

..... pta.

•elkarriren ekimenetan lagundu nahiko nuke

bai

•Nire etxean jaso nahi ditut Elkarri eta Elkarrikasi aldizkariak

4.000 pta.  
(urteko kuota)

1.000 pta.  
(hiruhilabeteko kuota)

•Hauetako argitalpen gehiago bidaltzerik ez dut nahi

•elkarriri buruzko informazioa jaso nahi dut aldiro e-mailez. Hau da nire helbide elektronikoa \_\_\_\_\_

izen-abizenak \_\_\_\_\_ N.A. \_\_\_\_\_ tfnoa. \_\_\_\_\_

helbidea \_\_\_\_\_ herria \_\_\_\_\_

herrialdea \_\_\_\_\_ kode postala \_\_\_\_\_

banku edo aurrezki kutxa \_\_\_\_\_

kontu zenbakia (20 digito)

[elkarri@elkarri.org](mailto:elkarri@elkarri.org)

gipuzkoa  
madril etorbidea, 5  
20011 donostia  
tf. 943 45 93 75 fax. 943 45 07 58  
e-mail: [gipuzkoa@elkarri.org](mailto:gipuzkoa@elkarri.org)

navarroa  
tutera kalea, 18 - 2. G  
31003 iruñea  
tf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88  
e-mail: [navarroa@elkarri.org](mailto:navarroa@elkarri.org)

araba  
estibalitz etorbidea 2 - 1. - 5. bulegoa  
01003 gasteiz  
tf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97  
e-mail: [araba@elkarri.org](mailto:araba@elkarri.org)

bizkaia  
arenal, 5 - SVRNE 209. bulegoa  
48005 bilbo  
tf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03  
e-mail: [bizkaia@elkarri.org](mailto:bizkaia@elkarri.org)

inprimategia: Antza, Industrialdea 2. pab.- 20160 Lasarte

lege gordailua: BI-327-99

# Argitalpen monografiko honen aurkezpena

Hiruhilabetean behin 40.000 lagunei doan helarazten dien bake prozesuari buruzko monografia laburren bilduma bat argitaratzen du elkarrik. Aurten urtarrilan «demokrazian sakondu» aldizkaria kaleratu genuen, bigarren hiruhilekoan «Alderdien Foroa» izenburua zeraman liburuxka, eta uda hasieran, VI Batzar Nagusiarekin batera, «Ausar zaitez» foilettoa. Orain 2000ko udazkeneko argitalpena aurkezten dizugu, sail honetako seigarrena, alegia.

Aukeratu dugun gaiak gaur egungo egoerarekin zerikusi handia du. «Eguno laberintoan orientatzeko gida labur bat» eskaintzen dizugu. Zergatik? Su-etena hautsi zenetik, nahasketa eta harridura nagusi direlako. Eztabaida politikoan krispazioaren eta tentsioaren gakoak ulertzea erraza ez delako. Indarkeriak, oinazea eta gaitzezpena eragiteaz gain, konponbideak aurkitzeko egiten diren ahalegin politikoak kutsatzen eta degradatzen ditu.

Zenbait diskurtso politiko guztiz destruktiboak dira eta nahastea eta alarma sentsazioa indartzen dute. Hau guztia nahikoa ez balitz, komunikabide boteretsuenak ez dira beti informazio eta argitasun ubideak. Maiz arazoak areagotzen dituzten «onak eta gaiztoak» gisako eskema hutsal eta manikeoetara garamatzate.

Testuinguru honetan eta argitalpen honekin elkarrik ez du formula magikorik eskaini nahi gaur egungo egoera argitzeko. Zein da gure helburua? Konpartitzea. Gure brujula, gure mapa eta gure puntu kardinalak konpartitzea, gizarte mugimendu honek «egungo laberintoan» ez galtzeko erabiltzen dituenak. Hau guztia, guretzat baliozkoa denez, besteentzat ere baliozkoa izan daitekeelako.

## Bi bitarteko egungo egoeran orientatzeko

### **Brujula: gure gaitasuna analisi kritikorako**

Bizi dugun unearen konplexutasunak esaten zaigun lehenengo gauzarekin edo gehien esaten denarekin ez konformatzera behartzen gaitu. Entzutea, irakurtzea, informazio iturriak dibertsifikatzea, analizatzea, ikastea, ondorioak ateratzea, eta beste pertonekin konpartitzea eta kontrajartzea komenigarriak dira guztiak. Hona gure brujula: analisi kritikorako dugun gaitasunean konfiantza izatea eta hau lantzea. Orientabide irizpide orokor bat izateaz gain, errebeldia pertsonal zein kolektibo forma bat da baita eskala handian pairatzen dugun manipulazio eta itxuragabekeriaren aurrean ere.

### **Mapa: gauzak aldatzea eragin dezakeena**

Hainbeste urteren ondoren, ezin dugu denbora gehiago galdu espektatiba faltsuekin. Esperientziak erakutsi digu neurri polizialek baka-rik ez dutela arazoa konpontzen. Ez ditugu errepikatu nahi huts egiten duten estrategiak, inobilismoa eta isolarazua gisako estrategiak esate baterako. Ez dugu indarkeriaren iragan antzura bueltatu nahi, etikoki eta politikoki bateraezina da gure gizartearekin. Honengatik guztiagatik, gurea demokratikoki eta pazifikoki gauzak alda ditzakeen mapa da. Benetan gauzak aldatzea ekarriko duen honetan zentratu nahi dugu, defendatu eta lagundu.



# Lau



# punt

## Gauzak aldatzen **eZ** dituen

### **I** Degradantea: indarkeria

Bizitza eskubidea bortxatzea giza eskubidearen urraketa larriena da. Indarkeriak soilik oinazea eragiten du, errealitatea eta gizartearen ametsak txirotzen ditu. Indarkeriak ez du errealitatea positiboki eraldatzen, okertu egiten du. Gatazka politikoak konponezinagoak egiten ditu. Edozein pertsonaren giza eskubideak bortxatzea —«kale borroka» pairatzen duen zinegotzi bat eta bere familia izan edo dispertsioa pairatzen duen preso bat eta bere familia izan— dehumanizazioa dakarren injustizia bat da. Honelako ezerk ez ditu gauzak aldatzen, okertu egiten ditu.

### **E** Antzua: inkomunikazioa eta isolamendua

Elkarrizketa ukatzea, inkomunikazioa bultzatzea eta gizartearen zati baten isolamendua proposatzea, elkar ulertzeko aukera ukatzea da, konponbidea ukatzea, alegia. Gaur ogi —galeriari begira—, eta bihar gose —etorkizuneko arazo bat inkubatzea, izan ditzakeen ondorioak aurretik ezagutzea ezinezkoa denean. Espainiako Gobernuak bezala, elkarrizketa ukatzen duenak arazoak areagotzen ditu eta indarkeriari oxigenoa ematen dio. Elkarrizketarik gabe oso zaila da gauzak aldatzea.

### **M** Irrealia: gizartea kontuan ez hartzea

Gure gizartearen gehiengoak nahi duena kontuan hartu gabe edo errespetatu gabe zerbait egitea edo aurrerapausoren bat ematea posible dela pentsatzea itsututa egotea edo herri honetan adin-nagusikoak ez garela sinestea da. Ezer ez da eta ez da posible izango gure hiritarren desioen kontra. Hauen aldarrikapenei ezin zaie beldurrik izan. Hau ekiditzeak, demokratikoa ez izateaz gain, ez ditu gauzak aldatuko.

### **H** Subjektiboa: ezperantzarik eza

Onartezinaren inpakto dardaratsuaren —indarkeria— eta manikeoaren inpakto anplifikatuaren —inmobilismoa— artean harrapatuta sentitzen gara. Pintza efektu honek gure ikuspegia gutxiengo baten eta bakar batzuen delatzen pentsatzera garamatza. Herri honek ez duela etorkizunik ez eta konponbiderik ere pentsatzera hain zuzen. Hau etsipena da, faktore subjektiboa, fatalismoaren aurrean amore ematea ekartzen duena. Dena dela, estridenteak, modu ezkorrean adierazita-koak, «Ezetza» konstanteak, eraikitzailetik ezer gutxi duenak; gutxiengoarena izateaz gain, ez ditu gauzak aldatzen.

# u kardinal orientatzeko

## Gauzak (bai) alda ditzakeena

### I Premiazkoa: indarkeriarik eza eta giza eskubideak

Premiazkoa indarkeriarik eza da konponbiderako bideak zabaltzen dituelako eta gure gaurko gizartearen izatearen, sentitzearen eta konpromiso zibilaren parte delako. Indarkeria guztiek desagertu behar dute eta ETAk gure herriaren indarkeriarik ezarekiko borondatea errespetatu behar du. Gizarte zibilari indarkeriarik eza eta giza eskubideen errespetua aldarrikatzea dagokigu. Gaur Euskal Herrian bake kulturak haxe esan nahi du: bitzta eskubidea defendatzea —hil behar ez delako eta hil ezin delako— eta giza eskubide guztiak eta guztionak defendatzea. Bake kulturak badu gauzak hobera aldatzeko gaitasuna.

### E Garrantzitsua: elkarriketa

Konponbidea dakarrena mugarik eta bazterketarik gabeko elkarriketa da. Nazioarteko esperientzia dugu gure alde. Benetan konpontzen diren gatazkak elkarriketaren bidez konpontzen dira. Elkarriketa saioek, euren aurkako propaganda eduki eta lehenengo saiakeretan emaitza definitiborik ekarri ez arren, laguntza merezi dute. Elkarriketa etengabeko ahalegina da —bien artean, hiruen artean, aldean itza eta azkenik guztien artean—, emaitzak lortzeko denbora eta konstantzia behar dituena. Honela gauzak alda daitezke, Irlandan eta beste hainbat gatazketan bezala.

### M Objektiboa: gizarteari entzutea

Determinantea gure gizarteak argi eta espreski nahi duena da: bere borondatea errespetatzea. Gaur, gure gizartearen gehiengoak indarkeriarik eza nahi du, mugarik gabeko elkarriketa nahi du eta bere etorkizuna erabakitzeko printzipio demokratikoak errespetatzea nahi du. Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruan gure gizarteari entzutea, kasu egitea eta bere iritzia errespetatzea, printzipio demokratiko bat izateaz gain, gauzak aldatzeko faktore klabea da.

### H Esperantza dakarrena: eraikitzailea den horretan konfiantza izatea

Ezinbestekoa da esperantza izatea. Esperantza izateko beharrezkoa da gizakiaren hoberenean konfiantza izatea. Gurea bezalako gatazka larri batean hau eraikitzailearen, positiboaren eta elkarlanean aritzearen bidez adierazten da; eta batzen gaituena zatitzen gaituenarengatik, integratzen duena bazterten duenarengatik eta gerturatzen gaituena aldentzen gaituenarengatik ordezkutzen. Zarata gutxiago ateratzen duen arren, gure gizartearen gehiengoa honekin bat dator. Bakeak eta normalizazioak eraikitzailea den horretan konfiantza izatea eskatzen dute esperantza edukitzeko eta gauzak alda daitezen laguntzeko.

# inora ez garamatzaten bideak

Euskal laberintoaren politikan maiz pista faltsuak aurkitzen ditugu. Ezin hobeki seinaleztatutako mezuak dira, bozgorailu indartsuak edukitzeaz gain foko handiek argizatzen dituzte. Eragozpen bat dute: ezer positibora ez garamatzaten norabideetara gidatzen gaituzteela. Hurrengo esaldiek «**pentsamendu sinplearen**» gehiegikeria bezala definienezakeenaren adibide txiki bat osatzen dute. Diskurtso politiko nagusiarengatik eta komunikabide handiengatik errepikatuenak eta anplifikatuenak aukeratu ditugu bakarrik, baina askoz ere adibide gehiago dago. Duten koalitaterik okerreina gauzak hobera egiteko lagungarriak ez izatea da. Mezu hauek arazoak konpontzea gero eta zailagoa izatea lortzen dute soilik.

## Erredukzionismoa

Errealitatearen ikuspegi sinplea eta partziala eskaintzean datza, modu honetara bere baitan dituen arazo-  
ei aurre ez egiteko. Errealitatearen parte bat ukatzea bezala da. Gure kasuan, adibiderik argiena gure gizarte-  
an arazo politikoen esistentzia ukatzen duen mezua da, Ajuria Eneko Itunen testuetako edukiekin kontraesane-  
tan eroriz.

*«Euskal Herrian terrorismo arazo bat dago soilik,  
ez dago elkarbizitza edo izaera politikoa duen konpondu gabeko arazorik»*

## Demagogia

Sortzen duten inpaktoak egia baino garrantzi handiagoa duten errekurtsio argumentalak erabiltzea. Gure  
herrian maiz norberaren probetxu politikoa bilatzen da, txalo erraza eta arrazoigabea edo besteen aurka iritzi  
publikoa piztea eragingo duten akusazio eraginkorren bitartez.

*«elkarrizketa laguntzea indarkeriaren konplizea  
izatea eta indarkeria erabiltzen dutenei babes ematea da»*

## Manikeismoa

Arazoa soilik zuria edo beltza posible diren dilema batean mugatzean datza. Argudiobide hau berdin ber-  
din erabiltzen dute alde bateko zein besteko muturretakoek. Egia osoaren jabe edo eztabaidea zinarenean bozera-  
male sentitzen direnek erabili ohi duten errekurtsioa da.

*«ez dago ez nabardurarik ez eta bitarteko jarrera edo esparrurik ere, aukeratu beharra dago»  
(nirekin ez dagoena nire aurka dago,  
zintzoen —gu— eta gaiztoen —besteen— arteko arazo baten aurrean gaude)*

## Sofisma

Faltsua den zerbait defendatzeko itxuraz arrazoizko argudioak erabiltzea. Adibiderik larriena  
Estatuko instantzia gorenetatik arlo konstituzionalean demokratikoaz egiten den mugapena da.  
Esate baterako aurkezten dizugun sofismatik monarkiaren aldeko bat errepublikaren aldeko bat  
baino demokratagoa dela erator daiteke.

*«Konstituziotik kanpo dagoena defendatzea ez da demokratikoa,  
Konstituzioaren aldekoak demokratikak dira, hau aldatu nahi dutenak aldiz ez»*

## Argudio hutsala

Tontotzat edo adin-txikikotzat hartzen gaituenak era-  
bilitako errekurtsio dialektikoa da. Ez du azalpen gehiagorik  
behar.

*«arazoa abertzaleak dira, konponbidea aldiz ez abertzaleak,  
Lehendakari ez abertzale batekin hildako gutxiago egongo dira,  
guztia Lehendakaria aldatzearekin konponduko da»*

